

Donostia, 2020ko urtarrilaren 24a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, INDARKERIA MATXISTEN BIKTIMEN OROITZAPEN, AINTZATESPEN
ETA KONPONBIDEA DELA ETA

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua hartzen duena aintzakotzat hartu eta INDARKERIA MATXISTEN BIKTIMEN OROITZAPEN, AINTZATESPEN ETA KONPONKETARI buruzko KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, UDALBATZAN EZTABAIDATZEKO.

JUSTIFIKAZIOA

Memoria kolektibo eta historikoaren, aintzatespenaren eta konponketaren arloko politikek irudimen kolektiboaren arazo politiko eta estrukturaltzat jotzen dituzte giza eskubideen urraketak.

Aurrerapen handiak egin dira indarkeria matxistak eskubideen urraketatzat aitortzeko. Hala ere, orain arte ez da lortu biktimak oroimen kolektiboan edo historikoan kokatzea, nahiz eta azken horrek eraldatze ahalmen handia izan.

Sarritan, gizarte zibilak bultzatu izan ditu arlo horretako ekintzak, erakundeek behar adinako laguntzarik eman gabe, askotan. Aitortu dezagun zenbait gobernuk ere egin dituela horrelako ekintzak, baina, era berean, izaera puntuala, zatikatua, irismen txikikoa eta beren artean artikulaziorik gabea izatera jotzen dutela.

Horiek horrela direla, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio indarkeria matxisten biktima eta handik bizirik atera diren guztiak aintzakotzat hartzeko, indarkeria matxisten inguruko memoria kolektiboa eta memoria historikoa eraikita, giza eskubideen urraketa horretarako berariazko oroimen-politika publiko baten bidez, konponketa eta aintzatespen ekintzak ere izango dituen politika, hiriko mugimendu feministaren eta oroitzapen politiketan eta programetan espezializatutako elkarteen parte-hartzearekin.
2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, batetik, udalerriko gizarte eta kultur etxeetan berdintasuneko eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako buruzko sentsibilizazio-jarduerak egitea bultzatzeko, indarkeria matxisten biktimen eta handik bizirik atera diren pertsonen lekukotzak entzutea ere sartuta jarduera horietan; eta, bestetik, indarkeria mota horien oroitzapenean eta konponketan espezializatutako erakundeekin trukea ere egiteko.

Izpta.: Aitzole Araneta,

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea.

